ERREPORTAJEA ERRENTA AITORPENA EGITEKO GARAIA DA GEHIGARRIA KILIBARREN

KULTURA MIKEL URDANGARINEK KONTZERTUA ESKAINIKO DU EKAINAREN 1 EAN, HERRIKO ANTZOKIAN

# Barren

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko maiatzaren 25a/VIII. urtea/364. zkia



184.500 +? +?

# Danbor hotsak berriz ere Trinitateetan

MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA

20.cco

INFORMAZIOA
San Roke Auzoa, 1-Elgoibar G ipuzkoa
Tel.: 943 744 132 Faxa 943 744 153
e.maila: amaia@fmh.es
web orria: www.frnh.es



## 2001-2002 IKASTURTEA

# HEZIKETA ZIKLOANIC

GOI MAILA (A eta D ereduak)
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)
- Mekanizazioa

**Ekainaren 5ean ateak zabalik, 19.00etan**



**Izena emateko epea:**
**Ekainaren 1 etik 12ra, biak barne**

E us Kacii

AENOR
ER-0633/1/98

IQNet

Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua

Mi uel ALTUNA

20.000

AENOR
0522:2/98

IQNet

# 2001/2002 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINTZA

## GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

Administrazioa eta finantzak
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
Mekanizazio bidezko prod ukzioa
J" Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta kautxogintza
Idazkaritza (Ingelesa eta f rantsesa)

## ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
Administraritza kudeaketa*

74w-"e,rat5-fgda epea Z4/374/ //t"
eAl;ra."eir 72"a,
(7%ki:9 brat5vgda azC7ailar-eyr 2til6"a.

•Zertifikazioaren eremutik kanpo

Norberaren gaitasunen eta
nahien arabera
egokitutako ibilbideak

Behar diren baliabideekin

Bide eta ate guztiak zabaltzen
dituzten ikasketak

Eskola publikoa:
integratzailea eta anitza

rlee i«ze(e~ e9u,ca, ota~t~ 30e,u
aivra44~ ! :0Deut41 20;00

**Ibargarai 1. - Bergara •**
**Tel. 943 76 24 91 / 943 76 38 40**
**Bulego orduak 9:00etatik 13:00etara**

ge/99.ehaga /rJiizalrez yeia leitupP-e tetibijor-a eta
mialYzatr-/it"zio azaima einurp dzikay



## Bixamona

Egunkari, telebista eta irratiak hauteskunde bixamonak (edo biharamonak edo ajeak) jota daude. Aste honetan Gasteizko Gobernuaren osaketari buruzko kinielak, elkarrizketak (ala bakarrizketak?), hartu diete tokia joan den asteko datu ufalei, eta aurrekoan nagusi izan zen kanpainari. Biharamona ere pasatuko da, eta azkenean "beti bezala" geldituko garenaren susmoa nabaritzen dut inguruan. Azkenaldian hainbeste berba egin dutenek erronka izugarria dute aurrean:"Beti bezala" petral hau aldatzeko pausoak ematea. Herritarrek hala eskatu eta bultzatuta.

Munduaren zilborra garela uste izan dugu azken asteotako informazio, diskurtso, mitin eta propagandak osatutako lainopean. Baina ez. Argitzen hasi da eta lehengo arazoekin jarraitzen dugu. Bizi dugun egoera politikoak gainontzeko arazo guztiak estaltzen ditu. Baina ez ditu desagertarazten. Kanpaina aurretik bezala orain ere hil bukaerara iristea "Misi6n imposible" pelikula izango da askorentzat; gaixotasunek jende gaztea zein helduagoa gure artetik eramaten jarraituko dute; istripuak edonoren patu beltza izaten segituko dute; bazterketa soziala errealitate gordina izango da oraindik ere hainbat kolektiborentzat; drogekin hainbeste sofritu duen herri honek ez du haren buztarritik ihes (ala HIES) egiterik lortu... Munduak biraka jarraitzen du.

1)1 1-

o

o

N

Montse Arregi



## Txapela eta ibili munduan

Urteko sasoirik beroenera hurbiltzen ari gara, eta oporrak ere hor dira gure zain. Denbora faltak eta estresak ere torturatzen gaituzte, eta opor desiratu horietara osasunez iritsiko ote garen galdetzen diogu askotan geure buruari. Iritsiko gara bai, eta, ahal bada behintzat, ihesean irtengo gara herritik bizimodu berri baten bila. Baina, nora?

Munduko txoko guztiek dute zerbait komunean, eta zerbait desberdin, zerbait agerian, eta bidaiari soilak nekez deskubritu ahal duen ezkutuko zerbait, misterio puntu bat. Mundu osoan komuna dena deskubritzeak gure mundu ikuskera erlatibizatzen du, eta absolutoa dena erlatibo egiten. Ezberdintasunak deskubritzeak, ostera, maitatzeko, gorrotatzeko, sufritzeko eta gozatzeko era guztiak posible direla ikustarazten digu.

Gure buruaz pixka bat ahaztu, eta munduan zehar ikuspegi ireki batez bidaiatzeak uste okerrak zuzentzea, eta mundua den bezala ezagutaraztea posible egiten du. Hortaz, txapela buruan, eta ibili munduan.

Amaia Lariz

ErreportAjea .................... 6
motz motz .................... 10
gehigarria .................... 13
kiROlAk .................... 20
aGenda .................... 24

# Urruzunoren begi ezkutua



Ez. Gaur ez. Urruzunoren begiak Elgoibarri bizkarra eman dio. Deprimituta dago. Nekatuta, gorrituta, minduta, Itsu. Argiaren ordez maiztasun ezberdineko uhin monokromatikoen gainezarmen inkoherentea dakusalako. Bere parean espazioak eta denborak bat egiten dutelako tetrabektoreen eskutik. Badakielako elektroiak fermioiak ez balira gu ez ginatekeela existituko, Are gehiago, ingurune guztia eremu eta partikulen sintesi batean agertzen zaiolako.

Eta oinazez irakurtzen ditu Bessel, Dirac, Einstein eta Schrbdingerren funtzio eta ekuazioak. llunki erreparatzen die spin eta spinoreen gorabeherei, hazkureak irensten du behagarri eta eragile kuantikoak bisitatzean, eta etsipenez isten da magnetismoaren teoria mikroskopikoaren aurrean. Eta abar.

Eta abar.

(Gaur ez dago begirik elgoibarrentzat. Gaur ez.)

Ion Garate


ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
itr 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea-com
Helbide informatikoa:
vovw.topagunea.comfbarren
**ARUPTARATZAILEA**
Elgotarke Izarra

Sis
EIGOIBAIKO IZAIRA

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Eli Alzpum **KAZETARIAK** hati Agirreazaldegi, Asier Orbea PUBLIZTATEA Andot Agirregomezkorta **MAKETATZA7LEA** Elea Ansola AOLIINISTRAZIOAArnaia Roddgez GERENTZIA Jon Peli Uriguen ela M. Angeles Oduoste. Koposonsusuak Amaia Lariz, Unai Argarate, Egozkide Aranberri, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Aitor Zabaleta, Leire Urkidi, Olga Unzilla, MonIse Arregi, Juanito Gorestiza, Iker Maguregi, Jon Gurrutxaga, Jon Eugi, Ainhoa Andenegi, Kokoe K.E. ela Urruzuno L.T. **AZALEKO ESALIRA** Gotzon **Garale INPRGIATEGIA** Gertu Koop. E. TtaADA 4.000 **ale LEGE GOROAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgotharko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak* eta Foru *Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

xlit kutxa
hDANOIIAT
GOITI



SIEGIJIMIS
**BIL131A0**

FORTIS

**BREAD ASEGURU ETXEA "FORTIS" TAIDE INTERNAZIONALAREN PARTE DA.**
**"EUROAREN ZONAII-K0 HAMAR FINANTZA ASEGURU ETXE GARRANTATSUENEN ARTEAN DAGO.**

**Profesional mailan haztea eta Bilbao Aseguru Etxearen hedatze planaren barruan sartzea nahi baduzu, ez galdu aukera!**

**ELGOIBARRERAKO ASEGURU AGENTEA ETA FINANTZA ZERBITZUETARAKO PERTSONA BEHAR DA.**

**BETEBEHARREKOAK:**
- Heiiketa matia ertaina
- Adina: 27 urte haino gehiago
- Jarrera komerthala
- Bakarkako tanerako hokazioa

**ESKAINTIA:**
- Berehalako lan kontratua
- Diru sarrera ftnitoak + komisioak

**CURRICULUMA HONAKO HELBIDERA BIDALI:**
Seguros Bilbao
Paseo Ramen Maria lili, 4 behea
20002 DONOSTIA
Erret Aholkularia

11111,21



• Herritar bat etorri zaigu BARRENera, **Pedro Migel Urruzuno eta Bernardo Ezenarro kaleak lotzen dituzten eskailerak,** "Gure Bide" elkartearen aurrean, **oso egoera txarrean** daudela esatera: " Eskilarak egoera txarrian egotiaz gain, eskinak ere apurtuta ditxuste eta oso peligrosuak daude jendiantzako".

## TXALOAK

• **Morkaiko Mendizaie Elkarteak herriko hainbat enpresari eta komertziori eskerrak eman nahi dizkie Elgoibarko Mendi** Itzulia **antolatzeko eman duten laguntzagatik.** Honako hauek dira: Karakate elkartea, Ibartxiki Ardoak, Altzolako Ura, Eroski, Bollar frutategia, Fraile harategia, Iraola harategia, Sahatzu harategia, Landa harategia, Ziarda harategia, Armueta harategia, Dori txarkutegia, Kalamua

• Gaztetxekoek honako idatzi hau bidali digute BARRENera: "Madalako Gaztetxea bota zuteneko X. urteurrenean kaleratutako erreportajea txalotu nahi dugu. Datetan akats batzuk zeuden eta beste gertakari aipagarri batzuk falta ziren baina, hala ere, eskertzekoa da zuen lana. Batez ere, elxe hartan ibili, gozatu, bizi eta borrokatu genuenon berri emateagatik".



• Emakume batek **Leku-Ederreko parkea gehiago zaintzea eskatu nahi du:** " Oso ondo iruditzen zait Leku-Ederren landareak eta loreak ipintzea. Baina palmeren azpialdean ipintzen dituztenak, adibidez, gero ez dituzte zaintzen. Ipintzea bakarrik ez dela guztia esan nahi diot Udalari, gero zaindu egin behar direla. Bestalde, umeak ere bertan ibiltzen dira eta gurasoei ere arreta gehiago ipintzea eskatuko nieke. Bakarra daukagu eta bera zaindu behar dugu".



# ERRENTA A1TORPE\A

**Odola ez askoren diru kontuak ere berotu ohi ditu udabernak. Izan ere, orain da garaia iazko irabaziak aztertu eta paper artean ibili ostean Haziendarekin urteroko hitzordua egiteko.** Apirilaren ban zabaldu zen epea eta Errenta Aitorpena egin behar dutenek uda hasierara arte izango dute horretarako astia, ekainaren 25a izango baita paperak bete eta aurkezteko azken eguna. Errenta Aitorpena egiteko modu asko dago, eta badira egiten ez dutenak ere. Guk erreportaje honetan Errenta Aitorpenaren inguruko hainbat argibide emango dizkizuegu. Esaera zaharrak ar:gi dio jokua ez dela errenta, eta errenta bera ere ez da jokuan ibiltzeko moduko gauza.

*Aurrez inoiz Errenta Aitorpena egin duenak badaki nora jo behar duen, baina izango da lehen aldiz egin behar eta nahastu samar dabilenik ere. Oso gutxi dira agiriak bete gabe libratuko direnak. Errenta Aitorpena aurkezteko lau modalitate daude, bakoitza leku eta era ezberdinean egin ahal izango da.*

1. TELEMAT1KOA:
Baimendutako profesionalen eta finantza erakundearen laguntzaz internet bidez aurkeztuko da zuzenean Haziendan. (www.gipuzkoa.netiogasuna/renta)

2. DISKETE BIDEZ:
Foru Ogasunak prestatutako programa erabiliz.

3. MEKANIZATUA:
Beharrezko agiriekin batera, aitorpenaren emaitza helbideratzeko kontu korrontearen zenbakia eramango da Haziendako bulegoetara. Jardueraren eranskinak enpresariek eta profesionalek baino ez dituzte aurkeztu behar. Bertan inprimakirik eraman gabe beraiek egingo dute aitorpena. Errenta Aitorpen mekanizatua egiteko ordua aurrez eskatu behar da, ekainaren 20a baino lehen.



Ordua **telefonoz eskatzeko:**
943 31 18 88 (gazteleraz) 943 31 19 99 (euskaraz)
Eigoibartik gertu dauden bulegoak:
EIBAR (Arragueta, 2), BERGARA (Mintegi, 5), AZPEITIA (Jose de Artetxe, 3).

**4. PAPER BIDEZKOA:**
Estankoan erositako inprimakia bete eta bankeixeetan zein Haziendako bulegoetan aurkeztu behar da. Modu honetan bankeixeetan zein asesorietan egin ohi dute.

Aliolkulariizetan Errenta Aitorpeneko inprimakiak bete edo kalkuluak egiten dituzte. Gero bezeroak nahi duen eran aurkezten du.

## NON EGIN DAITEKE ELGOIRARREN ERRENTA AITORPENA?

**AHOLKULAR1TZAK**

Bikain,
Antonio Arrillaga, 4 behea
Tel. 943 74 45 57

Gabiola,
San Frantzisko, 22
Tel. 943 74 07 97

Goar,
San Bartolome, 1
Tel. 943 74 26 74

Norfo,
P.M. Urruzuno, 6
Tel. 94374 31 40

Urkidi,
Kalamua,12
Tel. 943 74 18 91

**BANKETXEAK AURRIIKI KUTXAK**

Banco Bilbao Vizcaya,
Aita Agirre, 4
Tel. 943 74 01 62

Banco Guipuzcoano,
P.M. Urruzuno, 1
Tel. 943 74 17 62

Banco Central Hispano,
Errosario, 33
Tel. 943 74 18 50

Banco Santander,
San Bartolome, 42
Tel. 943 74 42 44

Banco Vasconia,
Errosario, 33
943 74 05 62

Bankoa,
San Frantzisko,1
Tel. 943 74 40 72

Kutxa,
Errosario,23
943 74 10 62

Euskadiko Kutxa,
San Inazio, 1
Tel. 943 74 06 54

La Caixa,
Errosario, 1
Tel. 943 74 45 12

# BEHARRA ALA OBLIGAZIOA2

### NORK AURKEZTU BEHAR DU ERRENTA AITORPENA?

Berez, zergari atxikitako errentak lortu dituztenek aurkeztu behar dute aitorpena, baina hada Errenta Aitorpena egitera behartuta ez dagoen jenderik.

- Lan irabaziak 3.000.000 pta.tik beherakoak direnean.
- Kapitalaren eta ondareen irabaziak 250.000 pezetako kopurua gainditzen ez dutenean.

Muga 1.300.000 pta.koa izango da erretentziorik izan ez dutenentzat edo diru sarrerak bi Iekutatik jasotzen dituztenentzat. Beti ere, diru sarrera nagusiaz gain jasotzen diren gainontzekoak 100.000 pta.tik gorakoak direnean.

- Bestalde, norberarentzat lan egiten duenak egiteko obligazioa dauka.

### BAKARRIK ALA BATERA?

Familia unitate batean sartutako zergadunek banaka egin behar dute aitorpena, eta gainontzekoek komeni zaienaren arabera bakarka edo batera aurkeztuko dute. Dena dela, familia bateko etekinak bateratuta aurkeztuz gero, murrizketa txiki bat egongo da. Baina, familiako kideren batek bakarkako aitorpena egingo balu, gainontzekoek ere hala egin beharko lukete. Oscar Gallastegik, Elgoibarko aholkularitza enpresa batean egiten du la eta esan digunez, "bikote batean, biek lana eginez gero, hobe da bakarkako aitorpena egitea, etekinak txikiagoak baitira. Bakarrak lan eginez gero, aldiz, baterakoa".

### BEHARREZKO AG1RIAK

- NANaren fotokopia
Familia Iiburuaren fotokopia
- Banketxeetako edo aurrezki kutxetako interesen estraktuak
- Fondoen edo akzioen salerosketak egiaztatzeko agiriak
- Etxebizitzen eskriturak,etxea erosi eta lehen urtean (ondoren, Haziendan gordeko dituzte datuak).
Etxea erosteko mailegua eskatuz gero, bankuko datuak.
- Aktibitate baten jabe direnek, aktibitatearen datuak
- Inmuebleen datuak (104)





**Langileek:**
- Lan en•etentzioen ziurtagiria (10-T)

**Pentsiodunek edo bajadunak:**
- Gizarte segurantzako agiria

**Ezinduek:**
Lan etekinen bonifikazioen ziurtagiria.

### RUZURRAK

Maiz entzun izan dugu Errenta Aitorpenaren inguruan iruzurrak egin ohi direla, baina Osearrek tranpak egitea zaila dela esan digu: "Gutxiago ordaintzeko modu bakarra, irabazi duguna baino gutxiago jaso dugula esatea da, baina ez da erraza. Haziendan karnetaren zenbakia sartu eta bankuko kontu guztiak, titularra zaren etxebizitza eta lokal guztiak, laneko irabaziak... ia datu guztiak agertzen dira. Beraz, iruzurra egitea gero eta zailagoa da. Bada oraindik hain kontrolatuta ez dagoen informaziorik, akzioen salerosketa, esaterako. Gainera, 10-T agiria dutenen, hau da, nominan lan egiten dutenen datu guztiak Haziendak ditu, ondorioz tranpa egiteko aukera duten bakarrak negozio propioen jabeak edo autonomoak dira".

### BEHARREZKOA AL DA ERRENTA AITORPENA EG1TEA?

Obligazioa dutenek hobe dute Errenta Aitorpena egitea; izan ere, Haziendak lau urteko epean erreklamazioa aurkeztu dezake, eta ondoren interesak ordaindu beharko tirateke. "Onena kalkulatzea da. Ordaintzea edo kobratzea tokatzen zaigun begiratu, eta ondoren, obligazioaren eta komeni zaigunaren arabera norberak erabakiko du Errenta Aitorpena aurkeztu ala ez". Gainera, gaur egun ordaintzeko erreztasunak ematen dituzte, bi epetan pagatu daitezke zergak.

### Hemendik aurrera zigarro kaxetan "tahakoak hil egiten du" ipiniko dute "erretzea osasunarentzat kaltegarria da" jarri ordez

## ALDAKETA HONEK ERAGINIK IZANGO AL DU ERRETZA1LEENGAN?



**TEOFILO VAL**
**71 urte, jubilatua**

Urte askotan ari dira propaganda egiten eta jendeak ez dio erretzeari uzten, hiltzea nahi dutela dirudi. Dena den, ongi iruditzen zait horrelako esaldiak jartzea.

**VERONICA PEREZ-CORTES**
**19 urte, ume zaintzailea**

Ez, erretzea txarra dela badakigu eta lema horiek jarri edo ez, berdin da. Horrelako kanpainek eraginik izango duten ala ez kanpaina egin dutenek beraiek jakingo dute.





**EMILIO ALVAREZ**
**64 urte, jubilatua**

Baliteke eragina izatea, baina erretzeari lagatzea norberagandik atera behar den zerbait da. Nik hiru pakete erretzen nituen egunean, baina egun batetik bestera utzi nion eta 14 urte pasa ditut erre gabe.

**LORE IRIONDO**
**40 urte, erizain laguntzailea**

Batenbatengan eukiko dau, baina kontradiktorixua da tabakuak zergetan Estaduari ematen dizkion irabazixak ikusitxa holako kanpainak eitxia. Urte askuan erretzailia izan nintzan eta egun batetik bestera laga nion.





**SARA BERNEDO**
**25 urte, dendaria**

Nik ez dot asko erretzen, eta hori irakurtziagatxik ez dot lagako. Danok dakigu txarra dala, eta lagatzen ez badogu, nahi ez dogulako da.

**SERGIO GONZALEZ**
**38 urte, peoia**

Baietz uste dut, horrelako kanpainek eta telebistaz entzuten ditugun gauzek epe Iuzera badute eragina. Nik ere utziko nuke, baina ezin dut, oso zaila da erretzeari uztea.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.

- ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
- IZENA EMATEAN ⁴¹⁄oi OEKO BEHERAPENA

1114<di ellay 4/14~ Otteek teind«ia 6 entetelu, k

ARRAÑAGA
TOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

# adituak

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**Kemen** Belardenda 1Medikuniza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

........................ San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

........................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Osasun naturalaren zure zentroa Eigobarren, informa zaitez)

........................ San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

........................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** (Optiko-optometrista)

...................... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

........................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

...................... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

........................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

...................... San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

........................ Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**

.......................... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

...................... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**

..................... San Bartolorne, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..................... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

## TURISTA KLASEAREN SINDROMEA

Izen horrekin ezagutzen da hegazkin bidaia luze baten ostean odol koagufuak sortzen dituen gaitza. Hankako zainetan sortzen dira odolbildu eta ondorioz, tronbosi larria eragin dezakete. Koagulu bat desegin edo biriketara zein burmuinera mugitzen bada, ondorioak larriak izan daitezke.

**tiaitza espazio txiki katean bidaia luze hat egin eta gero ager daiteke**

**ZERGATIK?**

Gaitz hau gertatzeko arrazoietako bat hegazkinetan turista klasean joaten direnek duten espazio txikia da. Hala ere, bada gaitz hau beste edozein garraiobidetan gerta daitekeela esaten duen adituri. Baldin eta leku txikian denbora tarte luzean inugitu gabe joanez gero.

**BIDAIA AURRETIK**

O Aspirina hartu, odola mehetzen du-eta.

❑ Enbolien aurkako galtzerdiak jantzi, koaguluen sorrera prebenitzeko.

**BIDAIAN**

O Ur asko edan eta ez alkoholik edan.

1:1 Hankekin ariketak egin.

**BIDAIAREN ONDOREN**

Koagulu txikiak izanez gero, baliteke arazoaz jabetu orduko ordu batzuk edo egunak pasatzea.

CI Gaitza duten guztiek ez dute beharrezkoa izango ospitalean egotea. Koaguluen aurkako tratamendua etxean bertan egin daiteke, beti ere ondo kontrofatuta.

*hurria: www.areasahid.t.ffin*

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra

# Garbitzaileen grebak ez du eraginik izan Elgoibarren

## Hala ere, garbitzaileen aurkako pintadak agertu dira herrian

Azken hilabete honetan greban daude lokal publikoak txukun mantentzeaz arduratzen diren garbitzaileak. Greba egiteko arrazoia lan baldintza hobeak eskatzea da: soldata igotzea eta 35 orduko lan astea, hain zuzen ere. Adel patronalak garbitzaileen proposamenak onartu artean, hauek greban jarraituko omen dute.

Elgoibarren, ordea, ez da igarri ia garbitzaileak greban daudela. Herriko kaleen garbiketaren ardura Debabarreneko Mankomunitateak dauka, eta enpresa publikoa izanik, ez dute grebarekin bat egin. Baina, Elgoibarko beste hainbat bulego eta leku publiko enpresa pribatuek kontratatutako garbitzaileek garbitzen dituzte. Hala ere, hauek lanean aritu direla jakin dugu. Herriko bi banketxetan, esaterako, grebarekin bat ez egitearren garbitzaileen aurkako pintadak agertu dira eta esan digutenez, hori gertatu denetik garbitzaile batzuk erdi ezkutuan ari dira lanean.




*Pasa den astean "Banco Santander" eta "Kutxa"-n pintadak egin zituzten garbitzaileen aurka.*

Gipuzkoako hainbat kiroldegitan ere izan du eragina grebak, Eibarko igerilekua, adibidez, itxi egin dute, eta ondorioz, bertako bazkide batzuk, gutxi batzuk badira ere, Elgoibarko Kiroldegira etortzen hasi direla esan digute Olaizaga Kiroldegikoek.

## Lapurreta saiakera izan zen asteartear Eroski Charterren

Eroskik San Frantzisko kalean duen Charter supermerkatuan lapurreta saiakera izan zen joan den asteartean. Eguerdiko 14:30ak aldera sarrerako ateen gaineko kristalak apurtu eta sartu ostean, diru kutxak indarrez zabaldu zituen lapurrak, baina dirurik ez zegoela eta kanpotik norbaitek somatu zuela ikusita, almazenetik ihes egin zuen. Handik denbora gutxira atxilotu zuten ordea. Charterretik esan digutenez, kalte nabannenik ez da gertatu eta azkenean ezer lapurtu gabe alde egin zuen dendatik.

# Udalak 600 milioi pezetako inbertsioak egingo ditu herriko auzoetako bizi kalitatea hobetzeko

## Berrikuntza gehienak 2002 eta 2003 urteetan egingo dituzte

Udalak "Izartu" programaren barruan 655 milioi pezetako inbertsioak egingo ditu. %75 Eusko Jaurlaritzak janiko du eta gainontzeko %25, Udalak. **Helburu** nagusia auzoetako bizi kalitatea hobetzea da, eta horretarako hurbilketa errazten saiatuko dira. Diru kopururik handiena, 500 milioi, 2002 eta 2003 urteen artean gastatuko dituzte. Egingo dituzten obrarik garrantzitsuenak: Urasandi auzora igotzeko eskailera mekanikoak (382 milioi pezeta). King-Kongeko zubitik Urasandi kalera eta bertatik Kalamua kalera bi eskailera eraikiko dituzte. Herri Eskolaren aldamenean eta Tontodromoaren aurreko partean aparkalekuak egingo dituzte (31 milioi pezeta).



*Urasandiko "tontodromoa"-ren aldamenean aparkalekuak egingo dituzte.*

Baina herri barruan ere badago zereginik, eta Deba ibaiaren aldamenean paseoa eraikiko dute (34 milioi pezeta). Bide batez baita landaretza onera ekarri eta erreka aldeko etxebizitzen fatxadak berritu ere. Bestalde, Gabilondoko lurpeko bidea egiteak 56 milioi pezetako kostua izango du.

### Aparkaleku eta eskailera gehiago

Aurrerago beste obra batzuk ere egingo dituzte: Arregitorre inguruan etxe berriak egiten dituztenean aldamenean aparkalekuak egin, Marafiondik San Roke auzora eskailera mekanikoak jarri eta baita Urasandiko fundizioa berritu. Beraz, lanak ondo joanez gero, Elgoibar aurpegi berriturik ikusiko dugu urte gutxiren buruan.

## 18 euskaldun zaharrek eman zu. "Zaharrak berri" kanpainaven aurkeznyv



Antzerki bidez aurkeztu zuten joan den ostiralean Arigera proiektuak martxan jarri duen "Zaharrak berri" kanpaina. Euskaldun zaharrak euskaldun berriengana hurreratzea da kanpaina honen helburua. Izena ematen dutenek euskara ikasleekin berba egin behar dute edo ikasleak motibatuta mantentzeko ekintzetan parte hartu, Oraingoz 18 euskaldun zaharrek eman dute izena, baina jende gehiagoren premia dago. Izena eman nahi dutenek heniko bi euskaltegietara, Udaleko Euskara Zerbitzura edo Elgoibarko Izarrara jo beharko dute. Kanpaina honek hilabeteko iraupena izango du.



## 3an Bartolome 'ffileko ohrn

## bat agertu da

San Bartolome kaleko 11. portalean obretan ari direla ate ezkutu bat agertu da Herrian obrak ikustea oso ohikoa da gaur egun, baina lanean ari dela sekula ez omen du horrelako gauza bitxtrik ikusi San Bartolome kaleko etxe honetan obretan ari den igeltseroak. Paretetako harriak ateratzen ari zirela eskaileren goiko partean ate berezi bat aurkitu dute. Flan eta hemen galdezka ibili gara eta Elgoibar sortu zenetik kale hon̄etan etxeak baino ez direla egon esan digute. Beraz, atea etxe batetik bestera pasatzeko leku ezkuturen batera edo aintzinako armairuren batena den inork ez daki ziur oraindik.


# OPOP batzuk hartien baditugu?

11**. Pentsio osoa. 7 gau.
Ekalnaren 2tik 15era.
29.000
pta./peptionska

Playa de Aro
N****. Pentsio erdia. 7 gau.
Ekainaren letik 22ra.
37.400
pta./pertsonako

graritabria
H**. Aste bukaerak
Pentsio osoa.
Ekainaren 30era arte.
.250
"Yperlsonske

Landak
4 perts. apartamentua
2 gau. Ekainaren 1etik 22ra.
15.220
pta./pertsonako

Senegal
H***. 7 gau +gosaria.
Hegazkina Madriletik. Irteera
ekainaren 14a baino lehen.
98.625
pta./pertsonako

Estokolmo eta Fiordoak
Irteera
baino lehen.
136.650
pta./pertsonako

EROSK; BIDAIAK

*Prezio onak baino askoz ere gehiago.*

SAN BARTOLOME, 11 - TEL. 843 744 858

# Euskaldunak behar dira zubi bat egiteko

Euskaldun zaharrak eta euskara ikasleak
elkartzeko intentzioarekin egin nahi dugu zubia.
Izan ere, euskara ikasleak bakar xamarrik ikusten ditugu
euskara ikasteko ahaleginean eta lagundu egin behar diegula erabaki dugu.



**Zu ere euskara ikasieel laijuutzeke prest bazaude...**

**deltu 843 74 16 26 telefonera Amaial.**

arigeza

1-felduen
aeuskalduntze-alfabetatzea
suspertzeko proiektua

Kili BaRRen

2001ko maioizoren 25a/VIII. urteo/74. z

## Ekainaren 9ko asteburuan izango dira aurtengo Trinitate jaiak

### Urtero bezala, jaietan ez da bakailao janik faltako



Aurten inoiz baino beranduago datoz Trinitate jaiak. Hala ere, umorea eta festarako gogoa ez dira faltako mendarotarren eta bertara hurbiltzen direnen artean. Ohiturari jarraituz, jaiei zuhaitza jasotzen eta kanpai hotsekin emango zaie hasiera. Igandean, hilaren 10ean, herri kirolak ere izango dira: Mugerza II. eta Mugerza III. aizkolariak batetik, eta Izeta aita-seme harrijasotzaileak, bestetik. Jaiak amaitzeko, astelehenean ez da bakailaorik faltako.

### Egitaraua

**Ekainak 9, larunbata**
Zuhaitza jasotzea,
Trinitateko zelaian.

**Ekainak 10, igandea**
10:30 Txistularien kalejira
Ondoren, Meza Nagusia
Jarraian, Herri Kirolak

**Ekainak 11, astelehena**
**11:00** Meza Nagusia
11:30 Bertso saioa
Ondoren,
Laja eta Ziolar trikitilariak
**14:00** Bazkaria,
Toki Alai jatetxean
19:30 Bakailao jana,
Aizpe Elkartean
Gauean, Laja eta
Ziolarrekin erromeria

## Ume askok hartu zuen parte Udalak antolatutako graffiti tallerrean

### Ekainean kar lasterketa, dantza, balleta eta diapositibak izango dira

Pasa den maiatzaren 1 9an graffiti tailerra izan zen mojen komentu zaharrean Udalak antolatuta. Bertan 2tik 16 urtera bitarteko haurrek eta gaztetxoek graffitiaren diseinuak landu zituzten ludoteka kanpoko hormetan. Horretarako, bi begiraleren laguntza izan zuten.



Diapositiba emanaldia
l3estalde, gaur, ostirala, gaueko 22:00etan, Mendaroko Kultur Etxean diapositiba emanaldia eta hitzaldia eskainiko ditu Santiago Gonzalezek. Santiagok 17 urte igaro ditu munduari bira ematen. Diapositiben Iaguntzarekin, berak eta bere familiak bidaia luze horretan gainditu behar izan dituzten oztopoen berri emango du. Ekainerako beste hainbat ekitaldi ere antolatu ditu Udalak. Besteak beste, kar lasterketa, "Pirineoak armonian" diapositiba emanaldia, Jose Gardokirekin dantzaldia eta baita ballet emanaldia ere.

## • Udaberrirako mendi irteerak antolatu ditu In Leikek

Aurreko udazkenean bezala, udaberrirako ere mendi irteerak antolatu ditu ln Leike Aisialdi eta Kultur Taldeak. Anboto eta Elorreta bisitatu dituzte orain arte. Hurrengo irteera ekainaren 3an, domekan, izango da eta Durango aldera, Untzilaitz mendira joango dira. Ekainaren 15etik l7ra bitarteko ateburuan Nafarroako Bortzirietako mendietara joango dira. Gaua Arantzako aterpetxean igarotzeko asmoa dute. Izena ematea nahi dutenek Txirristaka edo Ormola tabemetara. jo dezakete.

## 111 "I Gorputz Kurlitze" hilabetea antolatu du Gazte Asanbladak

Gazte Asanbladakoek "1. Gorputz Kurtitze" lehiaketa antolatu dute uztailerako. Ekainaren 30ean, larunbatean, emango zaio hasiera futbito maratoiarekin. Uztailaren 7an, kros herrikoia egingo da goizean Mendaroko kaleetan eta arratsaldean, berriz, ping-pongean neurtuko dituzte indarrak izena emango dutenek. Ekitaldiek uztailaren 14an jarraituko dute, esku pilota txapelketarekin. Amaitzeko, uztailaren 12an, goizean erlojupeko bizikleta lasterketa egingo da eta arratsaldean, saskibaloi txapelketa. Izena emateko epea ekainaren 3an, domekan, amaituko da. Txirristaka, Ormola edo Menditxon egin daiteke inskripzioa eta bertan, zein kiroletan parte hartu nahi den adierazi behar da.

KilinaRRen Kolaboratzaileak: Edurne Olazabal, Lurdes Rodriguez eta Enetz Ezenarro
Mendaroko Udalaren dirulaountzarekin argitaratua

# Kilimon Futbol Talde etorkizut

B :LTIA



1972. urtean sortu zen Kilimon **K.E.** Gurutzpe Kultur Elkartearen babesarekin. Juan Jose Goikoetxea izan zen lehen presidentea. Orduka konpetizioan 18 taldek hariu zuten parte eta Kilimoiak 14. postuan amaitu zuen 72-73 denboraldia.

Geroztik, urte asko igaro dira, baita jokalari eta entrenatzaile ugari pasatu ere. "Ospas-Gain" futbol zelaia 1974ko azaroaren 30ean sortu zen eta han jokatu izan ditu partiduak Kilimoi taldeak.

29 urte hauetan 1. erregional mailan aritu izan da, nahiz eta erregional preferentean (maila bat gorago) eta 2. erregionalean (beheko maila) zenbait urte ere egin dituen. Alpatzekoa da erregional preferentean 87-88 denboraldian urte osoan 3. mailara igotzeko ahaleginetan ibili ondoren lortutako **4.** postua.

Hasiera batean talde nagusia sortu bazen ere, ondoren gaztetxoek ere izan dute "Ospas-Gain"en jokaizeko aukera.

Urtero, ordea, kolokan jartzen da Mendaroko Futbol Taidearen etorkizuna. Taldeko zenbait ordezkariren iritziak jaso ditugu hurrengo orrialdean gai honen inguruan.

ia piska bat



## KILIMON KIROL ELKARTEA

**1972an sortu zen.**

**1974. urtean, "Ospas-Gain"** futbol zelaia egin zuten.

Bertatik igaro diren **presidenteak:**

Juan J. Goikoetxea, Jose Luis Zubiaurre, Miguel Zabala, Antton Zubiaurre, Javier Ezenarro, Alfredo Belda, Jose Agustin Arriola eta Elias Arriola.

**87/88 denboraldian:**

**4.** postuan geratu ziren preferente mailan

**93/94:**

2. erregionalera jaitsi ziren.

**95/96 denboraidiaz geroztik**

**1.** erregionalean mantendu da taldea.

Jubenilak **92/93 denboraldian** egon ziren azkenekoz elkartean eta infantilak, berriz, **89/90 denboraldian.**





**Elias Arriola**
**presidentea**

## "Gaurko gaztiek nahixao dabe belar artifizialeko kanpuetan jokatzia, `Ospas-Gain'-eko hondarretan baino"

Azken urteetan presidentea izateaz gain Kilimon K.E-aren arima da. Futbol talde batek, jokalariez eta entrenatzaileaz gain, kanpoan bestelako lanak egingo dituen jendearen beharra du. Kilimoian lanean aritu izan den jendea afizioz jardun da beti eta giro ona dago: "Kilimoiak zeozer euki badu ona, hori, bertan eon dan lagun girua da"- esan digu Eliasek.

Hala ere, jarraitu du, "Ospas-Gain bezelako futbol kanpuetara etortzeko gogorik ez dake gaurko gaztiek. Aukeria eukitxa, nahixao dabe belar artifizialeko kanpuetan jokatzia eta oso zaila da urtero taldia osatzia. Tristia izango litzake desagertu biharra. Belar artifizialdun futbol zelai berrixa eitxia lortuko bagenu,.."



**Fernando Loiola**
**entrenatzailea**

## "Nahiko egoera beltza da gaur dakaguna, urtero egoera berdinian gaude eta halako batian katia eten ein leike"

1974. urtean Kilimoira heldu ostean, urte bat edo beste kenduta, bere urte gehienak taldean egin ditu. Hasieran jokalari moduan eta azken 2 urteetan, entrenatzaile lanetan. Azken denboraldiko emaitzen ostean, baikor agertu zaigu Fernando: "Egixa da azken denboraldi hau patxal samarra izan dala. Jun zan urtian hain ondo ibili ostian esperantza haundixakin ekin ginon aurtenguari. Gainera, jun zan urteko taldia eustia lortu genduan eta horrek, ilusiva eman zigun. Baina gauzak ez dia nahi bezela urten".

Kilimoiak duen errelebo faltaren arazoaz mintzatu da ondoren Fernando: "Herri txikixa da Mendaro. Gainera, lehen baino gazte gitxiao dao eta horrek galera haundixa suposatzen dau "Kilimoi"-antzat. Lehenao, infantila eta jubenila zaozenian, bateron bat beti pasatzen zan talde nagusira eta kanpotik jendia Mendarora ekartzia ere errezaua zan. Gaur egun, jendiak nahixao izaten dau Eibarko edo Elgoibarko taldietan jokatzia "Ospas-Gain"-era etortzia baino".



**Igor Ezenarro**
**jokalaria**

## "Ospas-Gain'-go zelaixa eta belaunaldi berrixen faltia dia Kilimoian gaitz nagusixak"

15. denboraldia bete du aurtengoarekin Igorrek Kilimoian. Bera da taldean urte gehien darainatzana. "14-15 urtekin hasi nintzan, ikastolan genbiltzanian, Kilimoiko infantil taldian jokatzen. Garai hartan, infantilak eta jubenilak zaozen eta horrek indarra ematen zion ekipo haundixari. Futbolari esker lagun asko ein ditxut. Kirola eitxiaz gain, taldian lan eitxeko asko balio bihar da. Bizitzarako oso aberasgarrixa suertau jatala pentsatzen dot. Gainera, urte honetan danetan momento txarrak ere bizi izan ditxudan arren, onak askoz gehixao izan diala uste dot. Ni beti Kilimoian ibili izan naiz eta ez dakitx beste taldien zuzeneko berririk, baina kanpoko lagun askori entzun diuet esaten, Kilimoiko aldageletan giro berezixa dauala".
Etorkizuna nahiko beltza ikusten du Igorrek, zelai berria egiten ez den bitartean behintzat: "Ospas-Gaingo zelaixa eta belaunaldi berrixen faltia dia Kilimoian gaitz nagusixak".



1.....0. Ilabete honetako erretratu zaharra Patxi Urainek laga digu. Gutxi gorabehera 1951. urtekoa da erretratua. Garai hartan ez zegoen kiroldegirik eta entrenamenduak kortan egiten omen zituzten. Argazkiaren ezker aldean "Artzubi" entrenadorea ikus dezakegu eta harriarekin dagoena, Patxi Urain bera da.



)NTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 . 3.sotoa 943 74 36 52 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

(5 1
KAFETEGIA
943 74 42 65

*4 urtez lagata egon eta gera, herriko bi gazteren ekimenez berriz ere entzungo dira danbor hotsak herriko kaleefan, nagusien eskutik. Izan ere, ekainaren bederatzian, gaueko I I etan hasita, nagusien danborradak hartuko du Eigoibar. Ohlko pieza ezagunez gain, Eigoibarko danborradak berezkoa duen "Beti Eigoibar" doinua ere entzun ahal izango dugu. Danborren eta barriken erritmoa zuzenfzen bi gazte elgoibartar: Zigor Kornejo eta Miren Mujika. Gu Zigorrekin izan gara berbetan eta danborradarako herritarren parteharizea eskatu du.*



# "TanDorradaroko Kontinerak eta figurantiak oihor ciall

- Nola sortu zen danbarrada berriz egiteko ideia?

Lau edo bost urte zian tanborradia ez zala itxen, eta holako ohitxurak ez dia galdu bihar. Orduan, bi gazte hasi zian jendiari galdetzen ia tanborradia itxeko prest egongo zian, eta jendiak baietz esan zabanez, eurak organizau zaben.

- Zergatik zu danborren zuzendari?

Lehenengo ensaivan barrikentzako clirektore bat bazauan, eta tanborrentzako falta zan. Inork ez zaban nahi eta nik hartu naban puestua. Neri hasieran berdin jatan tanborra jotzia edo makilia mobitzia, baina uste naban baino zailaua da. Donostiako martxia ezagutzen naban, eta polka, diana... entzunda nitxuan, baina jakin...

- Zein da zuzendariaren betebeharra?

Nere lana tanborrak dirigitzia da: noiz jo bihar daben, noiz sartu bihar dian... esatia. Miren eta nere artian barrikak eta tanborrak koordinatzia lortu bihar dogu.

- Zuzendari bezala zer da gauzarik zailena?

Jendiak kaso itxia. Ensaivan 60 pertsona baldin badaude, eta abestixen artian makilekin zaratia ateratzen hasten badia, zuzendarixok ezin dogu kaseta entzun ere in, grabazivak ere nahiko eskasak dia gainera, eta hori kontrolatzia oso zaila da. Bestela, ensaiuekin koordinaziva hobetuz jungo dan kontua dala pentsatzen dot.

- Zer moduzko martxan doaz orain arteko entsaioak?

Oin arteko ensaivak pruebakuak izan dia eta jotzeko modua aldatzen jun gera. Ritmo desberdinak probau ditxugu eta definitibua aukerau dogu azkenian. Donostiako tanborradan jotzen dabenak oso onak dia, baina guk ritmua piska bat moteldu dogu, gure nibelera egokitzeko.

- Nolakaa izan da jendearen erantzuna?

Apuntauta ehunetik gora gazte gaoz, baina ensaiuetara ez dia danak etortzen. Beraz, aprobetxau nahi nuke jendiari ensaiuetara deitzeko. Ikasi eta prestatu in bihar da, eta hori ez da azkenengo astian bakarrik itxen. Ondo dao egunian bertan afarira etortzia eta ondo pasatzia, baina jendiak piska bat serixuao hartu biharko luke kontua. Tanborra eta barrilak jo bihar ditxuan jendia ez ezik, tanborradarako figurantiak ere bihar ditxugu: Koilara eta tenedor haundixekin dantzan juteko, kantinerak, zaldi gainian juteko bateron bat...

- Ba al dago Elgoibarrek berea duen piezarik?

Bai, danera bost pieza jo bihar ditxugu, eta hauetako bat "Beti, Elgoibar" izango da, Txomin Mujikak konposautako doinua da.

- Egunean bertan zein nolako harrera espero duzue herriko jendearengandik?

Ona. Nik txikitxan tanborradia ikusten nabanian ilusiva itxen zian eta oin ere tanborradia berriz entzutiak jendiari ilusiva ingo diola uste dot, bai umieri eta baitxa nausixeri ere. Zapatuan gabeko hamaiketan izanda, igual jendia afaltzen egongo da, baina, hala ere, harrera ona eukiko dabala uste dogu.

- Etorkizunean jarraituko al du tanborradak?

Badao urtero izena eman daban jendia, eta Trinidadien ostian tanborradako giro ona ikusitxa jende gehixao animauko da datorren urterako.

'1,

# informazioa

## INTERESEKO 1111111MIK

### OSASUNA
Anbulatorioa .. 943 03 26 10
Planning-a .... 943 74 29 50
Alkohoilko Anonimoak 94374 03 85
D Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
Gurutze Gorria 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea. 943 03 28 00
Odol Emaileak . 943 74 39 36

### GARRAIOAK
Eusko Trenbideak. 943 74 04 42
PESA (Eibar) .. 902 10 12 10
Taxi geltokia ... 943 74 08 98

### UDALA
Euskara Zerbitzua. 943 74 43 66
Lldal Kirol Patronatua. 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua. 943 74 21 58
Mendaroko Udala.. 943 75 61 00
Ongizate zerhilzua . 943 74 10 08
Udaletxea ......... 943 74 10 50
Udaltzaingoa 943 74 13 94

### BESTELAKOAK
Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Kiroldegia ......... 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
Liburutegia ...... 943 74 35 25
Musika Eskola 943 74 21 45
Mintxeta ......... 943 74 43 15
Parrokia ........... 943 74 08 42
Postetxea 943 74 15 47
Gaztetxea ......... 943 74 35 72

### ADINEKOEN ETXEAK
San Lazaro Egoitza. 943 74 02 96
Zaharren Biltokia . 943 74 05 26
Eguneko Zentroa 943 74 45 65

### IKASTETXEAK
Haur Eskola . 943 74 21 41
HHI (EPA) . 943 74 08 80
Herri Eskola 943 74 08 79
I.M.H. ............. 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre 943 74 80 19
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
I kastola ........... 943 74 44 41
Pilar Ikastelxea 943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK
BARREN ........... 943 74 41 12
El Diario Vasco . 943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Zazpiki irratia 943 74 34 74
Egunkaria ............. 943 30 02 28
Gara. ............. 943 31 69 99

## EuskoTren — TRENAK

DONOSTIA-BILBO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
DonostiakmARA 5.47 06.47
Elgoibar 07.02 08.02
Eibar 07.13

BILBO-DONOSTIA
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Bilbo 06:00
Eibar 06.13 07.13
Elgoibar 06.23 07.23

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Donostia ALIARA
07.47 08.47 09.47 10.47 11.47 12,47
Elgoibar
09.02 10.02 11.02 12.02 13.02 14.02
Eibar
09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13
DonostiaANWIA
13.47 14.47 15.47 16.47 17.47 18.47 19.47 20.47
Elgoibar
15.02 16.02 17.02 18.02 19.02 20.02 21,02 22.02
Eibar
15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20,13 21.13 22.13

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo
08:00 09:00 10.00 11.00 12.00 13.00
Eibar
08.13 09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13
Elgoibar
08.23 09.23 10.23 11,23 12.23 13.23 14.23
Bilbo
14.00 15.00 16.00 17.110 18.00 19.00 20.00
Eibar
15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 21.13
Elgoibar
15.23 16.23 17.23 18.23 19.23 20.23 21.23

## Eusko Tren — AUTOBUSAK

MENDARO-ELGOIBAR
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Mendaro 06.30 07.20 ...
Elgoibar 06.40 07.30 ...
*ordnerdiro, Mendaron 21.50ean azkena

Larunbata, igandea eta jaiegunetan
Mendaro 07.50 09.10 9.50 11.10 11.50
EIgobar 08.00 09.20 10.00 11.20 12.00
`orduoro, Mendaron 21.50ean azkena

ELGOIBAR-MENDARO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Elgoibar 06.25 07.25 07.55 08.25
Mendaro 06.35 07.40 08.10 08.40
'orduerdiro, Elgoibarren 21.25ean azkena

Lanuthata, igandea eta jaiegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 09.25 10.25
Mendaro 07.40 08.35 09.40 10.35
'orduoro, Eigoibarren 21.25ean azkena

## PES — AUTOBUSAK

AZPEITTA-BILBO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Elgoibar 06.50 13.20 18.50
Eibar 07.00 13.30 19.00
Larunbatak lanegunak
Elgoibar 09.50 14.50 18.50
Eihar 10.0D 15.00 19.00
Igande eta jaiegunetan
Elgoihar 9.50 19.50
Eibar 10.00 20.00

BILBO-A71EMA
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Bilbo 10.30 14.30 21.00
Eibar 11.20 15.15 21.45
Elgoibar 11.30 15.25 21.55
Larunbat lanegunak
Bilbo 9.30 14.30 21.00
Eihar 10.15 15.15 21.45
Elgoihar 10.25 15.25 21.55
Igande eta jaiegunetan
Bilbo 12.30 21.00
Eibar 13.15 21.45
Elgoibar 13.25 21.55

ONDARROA-BILBAO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Elgoibar 07.45 08.45 14.45 17.-i5
Eihar 8.00 9.00 15.00 18 00
Larunbat lanegunak
Elgoihar 7.45 8.45 14.45 17.45
Eibar 8.00 9.00 15.00 18.00
Igande eta jaiegunetan
Elgoibar 8.45 14.45 18.05 19.45
Eibar 9.00 15.00 18.15 20.00

BILBO-ONDARROA
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Bilbo 9.00 12.30 17.30 19.30
Eibar 9.45 13.15 18.15 20.15
Elgoibar 9.55 13.25 18.25 20.25
Larunbat lanegunak
Bilbo 10.30 12.30 17.30 19.30
Eibar 11.15 13.15 18.15 20.15
Elgoibar 11.25 13.25 18.25 20.25
Igande eta jaiegunetan
Bilbo 10.30 17.30 19.30 22.00
Eibar 11.15 18.15 20.15 22.45
Elgoibar 11.25 18.25 20.25 22.55

DONOSTIA-ERMUA (Autopista)
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Donostia 7.00 9.30 12.30 13.30 14.30
Elgoibar 7.35 10.05 13.05 14.05 15.05
Eibar 7.50 10.20 13.20 14.20 15.20
Donostia 15.00 17.30 18.30 19.30 20.45
Elgoibar 15.35 18.05 19.05 20.05 21.20
Eibar 15.50 18.20 19.20 20.20 21.30
Larunbat lanegunak
Donostia 12.30 15.00 17.30 19.30 20.45
Elgoibar 13,05 15.35 18.05 20.05 21.20
Eibar 13.20 15.50 18.20 20.20 21.30
Igande eta jaiegunetan
Donostia 12.30 17.30 19.30 20.45
Elgoibar 13.05 18.05 20.05 21.20
Eibar 13.20 18.20 20.20 21.30

ERMUA-DONOSTIA (Autopista)
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Eibar 7.00 7.30 8.00 8.50 10.30 13.30
Elgoibar 7.10 7.40 8.10 9.00 10.40 13.40
Eibar 14.30 15.30 18.30 20.30
Elgoibar 14.40 15.40 18.40 20.40
Larunbat lanegunak
Eibar 7.00 8.50 10.30 13.30 18.30
Elgoihar 7.10 9.00 10.40 13.40 18.40
Igande eta jaiegunetan
Eibar 9.30 13.30 15.30 18.30 20.30
Elgoibar 9.40 13 40 15.40 18.40 20.40



# Mikel Urdangarinek kontiertua eskainiko du ekainaren 1 eanf barixakuan

## Emanaldia gaueko 22:30ean haslm da Herriko Antzokian

*Udaieko Euskara eta Kultura Batzardeek, "Euskal Kantagintza" egitasmoarekin jarraituz, Mikel Urdangarin kantautore bizkaitarraren kantalcka antolatu dute datorren ekainaren lerako, barixakurako. Kontzertua gaueko 22:30ean hasiko da Herriko Antzokian.*

Ez da hau kantautore zornotzarra Elgoibarrera etorriko den lehen aldia. Iazko azaroaren 10ean ere kontzertua eskaini zuen Herriko Antzokian. Orduan, bigarren diskoko abestiekin etorri zitzaigun, "Badira hiru aste" diskokoekin. Oraingoan, hirugarren diskoa kaleratu ondoren, "Espilue" laneko kantak abestuko ditu.

"Espilue" izenburua duen azken diskoan 14 kantu bildu ditu Mikel Urdangarinek eta gehienak, berak konposatuak dira. Horietatik bi, "Zatozte" eta "Lau koplatxo" izena dutenak Edinburgoko estudio batean grabatu zituen, Jonathan Bews biolinistaren "Cantrip" taldearekin. Ukitu estilistiko kontenporaneoak, folk zeltiarrak, country amerikarrak, harizko instrumentuen klasikotasunak, akordeoiaren oihartzunak eta rock inguruko baladek osatzen dute "Espilue".

Hiru disko kaleratu ditu Mikel Urdangarinek. Gitarra eta txeloz jantzitako doinuekin, produkzio konplexuetatik urrundu nahi izan zuen lehen "Haitzetan" lanarekin. 1998an, "Badira hiru aste" bilduma kaleratu zuen, aurrekoa baino landuagoa. Orain, "Espilue" diskoa aurkezten ari da.

Gertutik abeslaria ikusi eta entzun nahi dutenek horretarako aukera aparta izango dute datorren ostiralean. Sarrerak 800 pta. balio du. Aurrez eros daitezke Kultur Etxean, goizeko 7:OOetatik arratsaldeko 15:00etara bitartean.

> "*Espilue*, bere azken diskoko kantak abestuko ditu Urdangarinek Elgoibarren"

gazte informazioa

tnlatliaTtaw TXARTELA

GAZTEA (14<25 urte)
NAN.
500 pto.
Gazte Txortetarekin 25Opta.

KELDUR (25<)
NAN.
1.000 pto.

FAMIUAKOR
NAN.
3.000 pto.

TALDEKOA
Partaideen zerrendo
Estatutuen kopia
2000 pta.
Dokunik EJko elkarteen partaideak

TXARTELA
Anazkia
NAN.
Matrikula
700 pta.

4.9 4115tp TXARTELA
Argazkia
NAN.
Lan kontratuaren fragagiria
1.000 pta.

tre-- TXARTELA
Rraazkia
NOL
700 pta.

Fite ceen liburu gidci ValigaiTIVOto.tan

E-maila:elg.gzerbitzua@terra.es

## Domekan, malaUaren 27an, zikloturisten irteeera izango da

Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, maiatzaren 27an, zikloturisten 19. irteera izango da. Plaza Handitik aterako dira goizeko 8:30ean, eta honakoa da egingo duten ibilbidea: Elgoibar, Ermua, Areitio, Berriz, Durango, Zornotza, Igorre, Dima, Otxandio, Legutio, Arlaban, Bergara eta Elgoibar. Guztira 125 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

## "CiD Elgolhar"-en urteroko batzarra egingo da ekainaren I ean, barixakuan

Datorren ekainaren lean, barixakuan, izango da "C.D Elgoibar" taldearen urteroko batzarra Kultur Etxean, arratsaldeko 19:30ean. Bertan, 2000/2001 denboraldiaren balantzea egingo da. Galderei erantzuteko ere prest azalduko dira mahaikideak. Ondoren, presidente berria hautatuko dute.

## Inolz baino jende gehiago atera da aurten Elgoibarko Mendi Itzuhan

### Antolatzaifeak oso gustora gelditu dira guztia ondo atera zelako eta partaidetza handia izan zutelako

Morkaiko Mendizale Elkarteak urtero antolatzen duen Elgoibarko Mendi Itzulia pasa den domekan, hilaren 20an, izan zen eta inoiz baino mendizale gehiago bildu zituen. 86 lagun atera ziren goizeko 6:30ean Morkaiko Mendizale Elkartearen egoitzaren aurretik. Eguraldi onak jendea animatu zuela dirudi. Iaz oso eguraldi txarra egin zuen eta 62 lagunek hartu zuten parte.

6 orduz azpitik

Elgoibarko helmugara heldu ziren lehen partehartzaileek 5 ordu eta 52 minututan egin zuten itzulia. Pilar Arriola, Iñigo Etxaniz eta Iriaki Ulaziak korrika egin zuten itzulia. Hiru kirolariak mendiko maratoia prestatzen ari dira eta sasoi onean daudela erakutsi zuten. Azken partehartzaileak arratsaldeko 16:00ak aldera iritsi ziren. Morkaiko Mendizale Elkartekoek esan digutenez: " Oso gustora gaoz. Dana ondo atara da eta partaidetza ere izugarrixa izan da. Gainera, bateron bat erretirau arren, ez da ezer serixuagatxik izan eta hori poztekua da". Jarraian. bazkaria egin zuten guztiek Merkatu Plazako azken solairuan eta " giro politxa euki genduan",- esan digute antolatzaileek.





## • Maialen Morak Euskadiko Judo Txapelketa irabazi dlu urtebete lesionatuta egon ostean

### Zuriñe Polok zilarrezko domina eskuratu du



*Maialen Morak maiatzaren 24tik 27ra bitartean Gijonen jokatuko den Espainiako Txapelketarako txartela lortu du garaipen honekin.*

ip pasa den maiatzaren 12an, larunbatean, Errenterian jokatu zen kadete mailako gizonezkoen eta emakumezkoen Euskadiko Judo Txapelketa. Maialen Morak eta Zuriñe Polok Gipuzkoako Selekzioarekin hartu zuten parte. "Ibai klub"-eko bi elgoibartarren emaitzak ez ziren nolanahikoak izan, biak podiumera igo ziren-eta. Maialenek urrezko domina eskuratu zuen 63 kg.z azpiko mailan eta Zuriñek, berriz, zilarrezkoa 44 kg.z azpikoan. Maialenentzat garaipen garrantzitsua izan da hau, belauneko ebakuntza bat egin ostean, ia urtebete jokatu gabe egon da-eta. Konbate guztiak "ippon" edo puntuazio gorenarekin irabazi zituen Maialenek. Finalean arerio gogorra zuen, Jone Ortiz arabarra, bi aldiz kadete mailako Espainiako txapeldun ordea izendakoa. Garaipen honekin maiatzaren 24tik 27ra bitartean Gijonen jokatuko den Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu zuen Maialenek.

# Pako Iriondori omenaldia egingo diote Kostaldeko Mendi Federazioek

## Maiatzaren 30etik ekainaren 3ra bitartean ekitaldiak antolatu dituzte herri desberdinetan

Pasa den maiatzaren 21ean, astelehenean, prentsaurrekoa eskaini zuten Elgoibarko Kultur Etxean egun gutxi barru Pako Iriondori egingo dioten omenaldiaren berri emateko. Omenaldia maiatzaren 30etik ekainaren 3ra arte luzatuko da. Herri desberdinetan ekitaldiak antolatu dituzte Kostaldeko Mendi Federazioa osatzen duten 19 erakundeek. Egitaraua E1goibarren hasiko da maiatzaren 30ean, asteazkenean, Herriko Antzokian, eta Mutriku, Azkoitia eta Arrasaten ekitaldi desberdinak egingo dira: hitzaldiak, bideo-emanaldiak, e.a. Ekitaldien berri agendako orrietan zehaztu dugu, bai egunak eta baita zer nolako ekintzak antolatu dituzten ere. Omenaldia Aretxabaletan amaituko da bertan egingo den bazkariarekin.



*Pakok iaz laga zuen Euskal Mendi Federazioko lehendakaritza.*

**Bazkari herrikoia**

Ekainaren 3an, Aretxabaletako Herriko Plazan amaituko da omenaldia bazkari batekin. Bazkarirako txartelak lortu nahi izanez gero, Morkaikok Errosario kalean duen egoitzara hurbildu edo 943 74 02 97 telefonora dei dezakezue. Txartelak 4.000 pta. balio ditu.

# Pedrusko Futbol Taldeak ez du lortu preferente mailara zuzenean igotzea

## Hala ere, oraindik baditu mailaz igotzeko aukerak

Pedrusko taldekoen ametsa bertan behera geratu zen pasa den larunbatean, hilaren 19an. Elgoibartarrek Plentzian jokatu zuten partidua eta baita 2 eta 3 irabazi ere. Hala ere, preferente mallara igotzeko Ilintxa eta Ordiziak berdintzea behar zuten eta ez zen posible izan, Ordiziak 0 eta 1 irabazi zuen-eta. Beraz, "gol aberage"-a dela-eta, Ordizia taldea da zuzenean kategoriaz igotzea lortu duena. Hiru taldeak (Ordizia, Pedrusko eta Ilintxa) 60 punturekin berdinduta zeuden eta ez zen nahikoa izan Pedruskokoek irabaztearekin bakarrik. Hala ere, oraindik ez dituzte aukera guztiak galdu. Jose Mari Oruesagasti Pedrusko taldeko presidenteak adierazi digunez :"Orain beste grupoko bigarrenaren kontra jokatuko dugu Berioren aurka eta gero, hirugarren mailako "play off"-a jokatzen dutenen zain egon behar gara. Gauzak ondo ateraz gero, oraindik ere preferentera igo gintezke".



*Pedrusko taldeak Berioren auka jokatuko du larunbatean, hilaren 26an.*

## EMAITZAK

**Futbota**

Elgoibar 3- Mundarro 1 (Pref.)
Elgoibar **2-** Urola 1 **(1. erreg.)**
Soraluze **2- Pedrusko** 3 (1. **erreg.)**
Beasain 8- Elgoibar **1 (Ohor. jub.)**
Elgoibar **0-** Lagun Onak 3 **(Oher. Int.)**
Ostadar 1- Elgoibar **2 (Neskak)**

**Eskubaloia**

**IMH** Elgoibar **28-** Pulpo **25 (Sen. mutil.)**
IMS Elgoibar **21-** Zarauz **18 (Sen. neskak)**
Aitxuri Leg. 13- **Pagoaga Elg. 19 (Kad. neskak)**
Arrate **17-** Tecnomeca **21 (Kad. mutil.)**
Pulpo **12-** Gaur Elgoibar **16 (Kad. mulil.)**
**Arrate 33-** Pneumax **17 (Jub. mutil.)**
Arrate **19-** Unceta Elg. 18 **(Jub. neskak)**

**Pilota**

**Lagunak Txapelketa**
Unamunzaga 18- Etxaniz **6 (Aleb.)**
Salegi **18-** Odriozola **8 (Ateb.)**
Tadeo **18-** Izeta **12** (Afeb.)
Larrea 8- Agirrebeña 18 **(Benj.)**
Mendibil 7- Arrizabalaga **18 (Benj.)**
Agirrebeña **22-** Arrieta **17 (Kad.)**
Ulazia **22-** Egia **21 (Kad.)**

**Idarraga kafeak 4. saria**

**HAUNDIko** jokalari **erregularrena 00/01**

| JOKALARIA .............. | PUNTUAK |
|---|---|
| **1-** Saiz ..................... | 49 |
| 2- Zulaika ................ | 34 |
| 3- Izagirre ................ | 35 |
| **4-** Laskibar .............. | 32 |
| 5- Gurrutxaga ........... | **29** |
| **6-** Lander ................. | 26 |
| 7- Caro ..................... | 25 |
| 8- Alkorta ................ | 22 |
| 9- Loren .................. | 21 |
| 10- Portu .......... | 18 |
| 11- Mugika ....................... | 15 |
| **12-** Pole .................. | 16 |
| 13- Joseba .............. | 12 |
| 14- Oskar ................ | 7 |
| 15- Igor.................... | 7 |
| 16- Etxaburu ............ | 6 |
| 17- Longarte ............ | 4 |

## AGENDA

**Eskalada,** Kiroldegian

**Ostirala, 25**
**16:00-17:30** Benjaminak
17:30-19:00 Alebin eta infantilak

**Futbola,** Mintxetan

**Larunhata, 26**
16:30 Pedrusko- Beriyo (1,erreg)
**18:15** Elgoibar- Hondarribia (Obor. jub.)
19:30 Gwendolyne- Elgoibar (Pref.)

**Eskubaloia,** Kiroldegian

**Larunhata, 26**
**16:00** Gaur Elgoibar- Arrate **(Kad. mutil.)**
**17:00** leizarari- Pagoaga ( **Kad. neskak)**
17:30 Tecnomeca- Usurbil (Kad, **mutil.)**
**18:30** Ereintza- Unceta ( **Jub. neskak)**
19:00 Pneumax- Bergara **(Jub. mutil)**
**Igandea, 27**
**10:15** Kunta kinte-Atxumurka
**11:00** Vulthur griphus-Dinamo de Gale
**11:45** Parques y jardines-Artificies del buen juego

# agenca

## Farmazia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 26 | Yudego* | Escala |
| 27 | Yudego* | Escala |
| 28 | Yudego* | Yudego |
| 29 | Exeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 30 | Fernandez | **Fernandez** |
| 31 | Bidasolo | **Bidasolo** |
| 1 | Zabaleta | |

**HELBIDEAK**

**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.
TeL 943 75 16 38
**FERNANDEZ**, Herriko enparantzu 4, Garagarza¡
Tel: 943 75 61 42
**ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

- eguerdiko 2:00ak arte

## okindegia

27 igandea Ibarrenea

## 25 BARIXAKUA

**19:30 MUSIKA ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO SAIOA**
Herriko Antzokian

**22:00 ZINE FORUM-A**
"Heredaras la tierra"
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea
Kultur Etxean

**22:15 ZINE KLUBA**
"Ni uno menos"

## 26 ZAPATUA

19:30-22:15 **ZINEA**
"Torrente 2: Miskin en Marbella"

## 27 DOMEKIA

8:30 **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
Antolatzailea:Elgoibarko Lagun Taldea
Irteera: Plaza Handitik

**16:30 ZINEA**
"Marco Antonio Hong-Kong-eko bahiketa" (Euskaraz)

19:30-22:15 **ZINEA**
"Torrente 2: Mision en Marbella"

## 28 ASTELEHENA

22:15 **ZINEA**
"Torrente Misian en Marbella"

## 29 MARTITZENA

**19:30 HITZALDIA**
"Euskal Herriko Mendizaletasunaren historia"
Hizlaria: Juanjo San Sebastian
Antolatzailea: KostaIdeko Mendi Federazioak. Pako Iriondori omenaldia.
Kultur Etxean

## 30 EGUAZTENA

**21:30 ZINE KLUBA**
"Recursos humanos"
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba eta LAB sindikatua

## 31 EGUENA

9:30 **TRIKITIXA ETA PERKUSIO BIKOTEA**
Donato Goyenetxe eta Edurne Iturbe
Kultur Etxean

**19:30 HITZALDIA**
Gaia: Hauteskundeen eta asanblea nazionalaren balorazioa
Antolatzailea: EH
Kultur Etxean

21:30 **ZINE KLUBA**
"Recursos humanos"
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba eta LAB sindikatua

## 1 BARIXAKUA

**19:30 C.D ELGOIBARREN BATZARRA**
**Kultur Etxean**

**22:30 KANTALDIA**
**Mikel Urciangarin**
**Herriko Antzokian**

ZINE kluba



## Recursos humanos

**Zuzendaria: Laurent Cantet**
**Antzezleak: JaIll Lespert, Jean Claude Vallod, Chantal Barre, Veronique de Pandalaere eta Michel Begnez.**
Frankek enpresaritza ikasten dihardu Parisen, eta praktikak bere aita 30 urtez lanean ari den enpresan hasiko ditu. Giza baliabideen alorrean ari da lanean. Langileen berregituraketa bat dela-eta 12 langile botako dituztela jakingo du, tartean bere aita. Frankek sindikatuei honen berri emango die eta hauek grebarako deialdia egingo dute. Bere aitak grebarekin bat egin dezan nahi du, baina aitak uko egingo dio eta bien arteko haserrea sortuko da.

## IRTEERAK

**Bizkaira bira**

Maiatzaren 30erako Bizkaira bira antolatu du Jubilatuen Biltokiak. Plaza Handitik goizeko 8:00etan irten eta Bizkaiko hainbat txoko ezagutu ostean, Zornotzako Autzagane jatetxean egingo dute bazkaria. 2.500 pta. ordaindu beharko dituzte irteeran parte hartu nahi dutenek, eta informazio gehiago jaso nahi izanez gero, Jubilatuen Biltokian izango da txangoaren berri.

## UDALEKUAK

**Atxutxiamaika eta Gaz-Tren udalekuak**

Atxutxiamaika eta Gaz-T aisialdi taldeek udalekuak antolatu dituzte eta izena emateko epea maiatzaren amaierara arte egongo da zabalik. Atxutxiamaikak udaleku irekiak antolatu ditu haur hezkuntzako umeentzat: LH 1. eta 2.ekoak Aubixara joango dira; LH 3. eta 4.koak Lizarrara; eta LH 5. eta 6. mailakoak, Urdirotzera. Gaz-Tkoek, berriz, Ubideara eta Angostora joateko aukera emango diete **DBH 1.** eta 2. eta DBH 3. eta 4. mailakoei, hurrenez hurren. Interesatuek Elgoibarko Izarrako 943 74 16 26 telefonora deitu (Eli).

## OMENALDIA

**Pako Iriondori omenaldia**

Kostaldeko Mendi Federazioak Pako Iriondori omenaldia egingo dio, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Maiatzaren 30ean "Euskal mendizaletasunaren historia" hitzaldia eskainiko du Juanjo San Sebastian mendizaleak Elgoibarko Herriko Antzokian, arratsaldeko 19:30ean. Maiatzaren 31n, 19:30ean, Mutrikuko Kultur Aretoan, "Euskaldunen lehen igoera Everestera" hitzaldia izango da. Ekainaren lean, Azkoitiko Floreaga ikastetxean, "Amin Brakk-eko igoera" hitzaldia emango dute 21:00etan. Amaitzeko, ekainaren 3an, igandean, Aretxabaletako Herriko Plazan bazkaria egingo dute.

## IKASTAROAK

**Batxilergoetako 1. mailakoentzako ikastaroak**

Elgoibarko Institutuan batxilergoko 1. ikasturtea gainditu dutenentzako ikastaroak antolatu dituzte. Besteak beste: EGA azterketarako prestatzeko eskolak, marrazketa ikastaroa, Internet kurtsoa, masaje eta steep saioak, eskalada, igeriketa, tenisa eta dantza praktikatzeko aukera izango dute. Ikastaroak astelehenean, hilaren 28an, hasiko dira eta izena eman gabe dutenek lehen egunean eman beharko dute. Ikastaroak doakoak dira. Informazio gehiago Institutuan bertan jaso dezakete ikasleek.

**Photoshop ikastaroa**

Ongarri Argazki Kolektiboak Photoshop ikastaroa antolatu du. Ikastaro honen asmoa argazkiak eta irudiak lortzeko aukerak gehitzea da. Aldi berean, argazki zaharren eta izorratutakoen berreskurapena nola lortu ikusiko da.

Kurtsoa ekainaren 4tik 15era bitartean izango da, astegunetan, arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean, Elgoibarko Ikastolan. Bazkideek 5.500 pta. ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek, 7.000 pta. Dirua Euskadiko Kutxako 30350007230070015553 kontu zenbakian sartu beharko da. Izena emateko deitu 943 74 23 01 telefonora.

## zine

KARTELDEGIA

**ELGOIBA**

**"Torre MisiOn en Marbella"**

Zapatua: 19:30-22:15

Domekia: 19:30-22:15

Astelehena: 22:15

**"Recursos humanos"**

Eguaztena 21:30

Eguena: 21:30

**EIBAR, Unzaga**

**"Noviembre dulce"**

Barixakua: 22:15

Zapatua: 17:00-19:30-22:15

Domekia: 17:()0-19:30-12:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martittena: *19:30-*11:15

**EIBAR, Rialto**

**"PremoniciOn"**

Barixakua: 19:30-22:15

Zapatua: 17:00-19:45-22:30

Domekia: 17:(10-11):45-22:30

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: *19:30-'22:15

**BERGARA, Novedades**

Domekia: 19:30-21.15

Astelehena: 19:30

Martitzena: 19:30-11:15

**"Un San Valentin de muerte"**

Zapatua: 17:00

Domekia: 17:00

"IkuNlearen eguna



## Torrente 2: MisiOn en Marbella

**Zuzendaria: Santiago Segura**

**Antzezleak: Santiago Segura, Gabino Diego,Tony Leblanc, Jose Luis Moreno, Ines Sastre, Arturo Valls eta Juanito Navarro.**

Costa del Solen ibilaldi bat egin ostean, Marbellan geratuko da Torrente. Bertan bere gustuko gauzetan arituko da: herritarrak defendatzen, justizia betearazten eta inuzenteak engainatzen. Tartean Spinelli arma trafikatzailea sartuko da, eta 2.000 milioi pezeta eman ezean hiria suntsituko duen mehatxua egingo du. Gizon batek baino ezingo du hiria salbatu, baina pelikula bat grabatzen ari denez Torrentek hartuko du bere lekua.

# erretratu zaharra

2001-V-25



Aste honetako erretratua Jesus Mari Eturak laga digu. 1941 urtean atera zuen argazkia lagun koadrila honek Urbira egindako irteera batean. Garai hartan Morkaiko Mendizale Elkartea sortu gabe zegoen baina sortu zenean, erretratuan agertzen diren guztiak bazkide izan ziren. Hauek dira bertan azaltzen direnak:

Zutik, ezkerretik eskumara: Alberto Juaristi (t), Iñaki Konde (f), Bitor Rementeria (t), Julian Oteiza (1) (?), Teodora Larreategi (t) (?), ezezaguna, Jose M. Mendizabal, Julian Azkue (f), Agapita Soroiz (t) eta Juanito Arrieta (f) senar-emazteak; eta Rafael Mugerza (t).

Eserita: Eduardo Elorza (f), Julian Zabaleta, ezezaguna, Eduardo Agirre (t), Pio Etura *(t)* eta Jose M. Eiorza.



*ESKERTZA*

*2001eko maiatzaren 17an, 60 urte zituda hil zen JOSE AGLISTIN ASTIGARRAGAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*MONICA AIZPITARTE COLINA*

*2001eko maiatzaren 17an, 37 urte zituela hil zen*

*"Lagun artean estimatua izan zaitugu,*
*Monica gure artean betiko biziko zara"*

*Zure koadrilakoak*






# GE3110 ESKOLA

## ZURE ETORKIZUNERAKO AUKERA EZ1N HOBEA BERRITZAILEA ETA GIZARTEAREN ERREKONOZIMENDUA JASO DUENA:

Euskadi








**AURKEZPEN SAIO IREKIA**
***MAIATZAREN 30ean ARRATSALDEKO 18:30ean***
**GESTIO ESKOLAKO ARETO NAGUSIAN**
**IMH San Roke, 1 20870 ELGOIBAR**
**Telefonoa: 943 744 132**

ZATOZ! EZ ZA1ZU DAMUTUKO

# KULTURA




## KONTZERTUA

Ekainak 1, ostirala
gaueko 22:30ean

KULTURA eta
EUSKARA SAILAK

FORU ALDUNDIA

## EKI EGUZKIA (EUSKARAZ)

AMETSEN KONPAINIA

Ekainak 3, igandea
arratsaldeko 16:30ean

KULTURA
SAILA

SAREA







# HERRIKO ANTZOKIAN